

Convención Internacional sobre la Eliminación de todas las Formas de Discriminación Racial

Adoptada y abierta a la firma y ratificación por la Asamblea General en su resolución 2106 A (XX), de 21 de diciembre de 1965

Entrada en vigor:

4 de enero de 1969, de conformidad con el artículo 19

Los Estados partes en la presente Convención,

Considerando que la Carta de las Naciones Unidas está basada en los principios de la dignidad y la igualdad inherentes a todos los seres humanos y que todos los Estados Miembros se han comprometido a tomar medidas conjunta o separadamente, en cooperación con la Organización, para realizar uno de los propósitos de las Naciones Unidas, que es el de promover y estimular el respeto universal y efectivo de los derechos humanos y de las libertades fundamentales de todos, sin distinción por motivos de raza, sexo, idioma o religión.

Considerando que la Declaración Universal de Derechos Humanos proclama que todos los seres humanos nacen libres e iguales en dignidad y derechos, y que toda persona tiene todos los derechos y libertades enunciados en la misma, sin distinción alguna, en particular por motivos de raza, color u origen nacional,

Considerando que todos los hombres son iguales ante la ley y tienen derecho a igual protección de la ley contra toda discriminación y contra toda incitación a la discriminación,

Considerando que las Naciones Unidas han condenado el colonialismo y todas las prácticas de segregación y discriminación que lo acompañan, cualquiera que sea su forma y dondequiera que existan, y que la Declaración sobre la concesión de la independencia a los países y pueblos

Arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa

Biltzar Orokorrak onartu eta sinadura eta berrespenerako irekia, 1965eko abenduaren 21eko 2106 A (XX) ebazpenean

Indarrean jartzea:

1969ko urtarrilaren 4an, 19. artikuluekin bat etorritz.

Konbentzio honetako estatu alderdiek,

Kontuan harturik, Nazio Batuen Gutunaren oinarri direla duintasun- eta berdintasun-printzipioak, gizaki guztiei datxezkienak, eta estatu kide guztiek, erakundearekin lankidetzan arituz, neurriak hartzeko konpromisoa hartu dutela, elkarrekin edo bananduta, Nazio Batuen helburuetako bat gauzatzeko, alegia, guztion giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetu unibertsala eta eragingarria sustatzea eta bultzatzea, bereizkeriarik egin gabe, arraza-, sexu-, hizkuntza- edo erlijio-arrazoiengatik.

Kontuan harturik, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak aldarrikatutakoaren arabera, gizaki guztiak aske jaiotzen direla, berdinak izanik duintasunari eta eskubideei begira, eta pertsona orok bertan adierazitako eskubide eta askatasunak dituela, inolako bereizketarik egin gabe, batik bat, arraza, larru-kolore edo jatorri nazionalaren ondoriozko arrazoiengatik,

Kontuan harturik, gizaki guztiak berdinak direla legearen arabera, eta gizaki guztiek legearen babes bera izateko eskubidea dutela, bereizkeria ororen aurka eta bereizkeria bultzatzen duen egintza ororen aurka,

Kontuan harturik, Nazio Batuek kolonialismoa eta horrekin batera gauzatu ohi diren segregazio- eta bereizkeria-eginera guztiak kondenatu dituztela, horien mota eta horiek dauden tokia edozein dela, eta herrialde eta herri kolonialei independentzia emateari buruzko

coloniales, de 14 de diciembre de 1960 [resolución 1514 (XV) de la Asamblea General], ha afirmado y solemnemente proclamado la necesidad de ponerles fin rápida e incondicionalmente,

Considerando que la Declaración de las Naciones Unidas sobre la eliminación de todas las formas de discriminación racial, de 20 de noviembre de 1963 [resolución 1904 (XVIII) de la Asamblea General] afirma solemnemente la necesidad de eliminar rápidamente en todas las partes del mundo la discriminación racial en todas sus formas y manifestaciones y de asegurar la comprensión y el respeto de la dignidad de la persona humana,

Convencidos de que toda doctrina de superioridad basada en la diferenciación racial es científicamente falsa, moralmente condenable y socialmente injusta y peligrosa, y de que nada en la teoría o en la práctica permite justificar, en ninguna parte, la discriminación racial,

Reafirmando que la discriminación entre seres humanos por motivos de raza, color u origen étnico constituye un obstáculo a las relaciones amistosas y pacíficas entre las naciones y puede perturbar la paz y la seguridad entre los pueblos, así como la convivencia de las personas aun dentro de un mismo Estado,

Convencidos de que la existencia de barreras raciales es incompatible con los ideales de toda la sociedad humana,

Alarmados por las manifestaciones de discriminación racial que todavía existen en algunas partes del mundo y por las políticas gubernamentales basadas en la superioridad o el odio racial, tales como las de apartheid, segregación o separación,

Resueltos a adoptar todas las medidas necesarias para eliminar rápidamente la discriminación racial en todas sus formas y manifestaciones y a prevenir y combatir las doctrinas y prácticas racistas con el fin de promover el entendimiento entre las razas y edificar una comunidad internacional libre de todas las formas de segregación y discriminación raciales,

Adierazpenak, 1960ko abenduaren 14koak, [Biltzar Orokorraren 1514 (XV) ebazpena], adierazi eta solemnitateaz aldarrikatu duela halakoak lehenbailehen eta baldintzarik gabe bukatu behar dutela, Kontuan harturik, arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazio Batuen Adierazpenak, 1963ko azaroaren 20koak [Biltzar Orokorraren 1904 (XVIII) ebazpena], solemnitateaz adierazi duela, dela munduko toki guztietan arraza-bereizkeria lehenbailehen ezabatzeko beharrezana, horren mota eta agerpenak edozein izanik ere, dela gizakiaren duintasuna ulertzea eta errespetatzea ziurtatzeko beharrezana,

Jakinik, arrazaren desberdintasunetan oinarritutako nagusitasun-doktrina oro zientifikoki faltsua, moralaren aldetik kondenagarria eta sozialki bidegabea nahiz arriskutsua dena, eta ez teorian, ez praktikan deusek ere ez duela justifikatzen, inongo tokitan, arraza-bereizkeriarik,

Berretsiz, arraza, larru-kolore edo jatorri etnikoaren ondoriozko arrazoiengatik, gizakien arteko bereizkeria oztopo bat dela, nazioen arteko harremanak lagun artekoak eta baketsuak izan daitezen, eta bereizkeria horrek kalte egin diezaikeela herrialdeen bakeari eta segurtasunari, bai eta pertsonen elkarbizitzari ere, nahiz eta estatu bateko mugak ez gairitu,

Jakinik, arrazaren araberako hesiak izatea bateraezina dela edozein gizartek dituen idealekin,

Asaldaturik, munduko zenbait tokitan oraindik arraza-bereizkeriaren inguruan dauden agerpenengatik, eta arraza-nagusitasunean edo -gorrotoan oinarritutako gobernu-politikengatik, horien artean direla apartheid, segregazioa edo banantzea,

Erabakia harturik, behar diren neurri guztiak hartzeko, lehenbailehen arraza-bereizkeria ezaba dadin, horren mota eta agerpenak edozein izanik ere, eta doktrina nahiz eginera arrazista guztiak prebenitu eta borrokatzeko, arrazen artean elkar ulertzea susta dadin, eta nazioartean arraza-segregazio nahiz -bereizkeria guztietarik aske den erkidegoa eraiki dadin.

Teniendo presentes el Convenio relativo a la discriminación en materia de empleo y ocupación aprobado por la Organización Internacional del Trabajo en 1958 y la Convención relativa a la lucha contra las discriminaciones en la esfera de la enseñanza, aprobada por la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura en 1960,

Deseando poner en práctica los principios consagrados en la Declaración de las Naciones Unidas sobre la eliminación de todas las formas de discriminación racial y con tal objeto asegurar que se adopten lo antes posible medidas prácticas,

Han acordado lo siguiente:

Parte I

Artículo 1

En la presente Convención la expresión «discriminación racial» denotará toda distinción, exclusión, restricción o preferencia basada en motivos de raza, color, linaje u origen nacional o étnico que tenga por objeto o por resultado anular o menoscabar el reconocimiento, goce o ejercicio, en condiciones de igualdad, de los derechos humanos y libertades fundamentales en las esferas política, económica, social, cultural o en cualquier otra esfera de la vida pública.

Esta Convención no se aplicará a las distinciones, exclusiones, restricciones o preferencias que haga un Estado parte en la presente Convención entre ciudadanos y no ciudadanos.

Ninguna de las cláusulas de la presente Convención podrá interpretarse en un sentido que afecte en modo alguno las disposiciones legales de los Estados partes sobre nacionalidad, ciudadanía o naturalización, siempre que tales disposiciones no establezcan discriminación contra ninguna nacionalidad en particular.

Las medidas especiales adoptadas con el fin exclusivo de asegurar el adecuado progreso de ciertos grupos raciales o étnicos o de ciertas personas que requieran la protección que pueda ser necesaria con objeto de garantizarles, en condiciones de

Gogoan harturik, enplegu- eta okupazio- arloko bereizkeriari buruzko Hitzarmena, Lanaren Nazioarteko Erakundeak 1958an onetsitakoa, eta irakaskuntza-esparruko bereizkerien aurka borrokatzeari buruzko Konbentzioa, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak 1960an onetsitakoa,

Asmoa izanik, arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazio Batuen Adierazpenak ezarri dituen printzipioak praktikan jartzea, eta xede horrekin ziurtatzea neurri praktikoak ahalik arinena har daitezela,

Hurrengo erabaki dute:

I. Zatia

1. artikulua

Konbentzio honetan «arraza-bereizkeria» esapideak agertuko du edozein bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehenespen, baldin eta hori oinarritzen bada arraza, larru-kolore, leinu edo jatorri nazional nahiz etnikoaren ondoriozko arrazoietan, xede edo ondoriotzat izanik giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen aitortpena, izatea edo egikaritzea deuseztatzea edo kaltetzea, politika-, ekonomia-, gizarte-, kultura-esparruetan edo bizitza publikoko beste edozein esparrutan.

Konbentzio hau ez da aplikatuko konbentzio honetako estatu alderdi batek egiten dituen bereizketa, bazterketa, murrizketa edo lehenespenei begira, herritarren eta herritar ez direnen artean.

Konbentzio honetako klausuletatik bat bera ere ezin izango da interpretatu estatu alderdien naziotasunari, herritartasunari edo bertakotzeari buruzko lege-xedapenak ukitze aldera, betiere, xedapen horiek ez badute beren-beregi bereizkeriarik ezartzen inolako naziotasunaren aurka.

Arraza- edo etnia-talde nahiz pertsona batzuen aurrerapen egokia ziurtatzeko helburuarekin bakarrik hartutako neurri bereziak, talde eta pertsona horiek behar duten laguntza premiazkoa denean, berdintasun-baldintzetan berma dakien

igualdad, el disfrute o ejercicio de los derechos humanos y de las libertades fundamentales no se considerarán como medidas de discriminación racial, siempre que no conduzcan, como consecuencia, al mantenimiento de derechos distintos para los diferentes grupos raciales y que no se mantengan en vigor después de alcanzados los objetivos para los cuales se tomaron.

Artículo 2

Los Estados partes condenan la discriminación racial y se comprometen a seguir, por todos los medios apropiados y sin dilaciones, una política encaminada a eliminar la discriminación racial en todas sus formas y a promover el entendimiento entre todas las razas, y con tal objeto:

- a) Cada Estado parte se compromete a no incurrir en ningún acto o práctica de discriminación racial contra personas, grupos de personas o instituciones y a velar por que todas las autoridades públicas e instituciones públicas, nacionales y locales, actúen en conformidad con esta obligación;
- b) Cada Estado parte se compromete a no fomentar, defender o apoyar la discriminación racial practicada por cualesquiera personas u organizaciones;
- c) Cada Estado parte tomará medidas efectivas para revisar las políticas gubernamentales nacionales y locales, y para enmendar, derogar o anular las leyes y las disposiciones reglamentarias que tengan como consecuencia crear la discriminación racial o perpetuarla donde ya exista;
- d) Cada Estado parte prohibirá y hará cesar por todos los medios apropiados, incluso, si lo exigieran las circunstancias, medidas legislativas, la discriminación racial practicada por personas, grupos u organizaciones;
- e) Cada Estado parte se compromete a estimular, cuando fuere el caso, organizaciones y movimientos multirraciales integracionistas y otros medios encaminados a eliminar las

giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen izatea edo egikaritzea, ez dira arraza-bereizkeriazko neurritzat hartuko, betiere, horren ondorioz ez badira ezartzen eskubide desberdinak arraza-talde desberdinentzat, eta neurri horiek indarrean jarraitzen ez badute, neurriok zein helbururekin hartu eta helburuok lortu ondoren.

2. artikulua

Estatu alderdiek arraza-bereizkeria kondenatu eta konpromisoa hartzen dute, egoki diren bide guztiak erabilita, eta atzerapenik gabe, arraza-bereizkeriaren mota guztiak ezabatzeko, eta arraza guztien artean elkar ulertzea sustatzeko, eta xede horrekin:

- a) Estatu alderdi bakoitzak konpromisoa hartzen du, arraza-bereizkeriazko inolako egintza edo eginerarik ez gauzatzeko pertsonen, pertsona-taldeen edo erakundeen aurka, eta zaintzeko agintari publiko eta erakunde publiko guztiek, nazionalak eta toki-mailakoek, betebeharrak horrekin bat etorri jarduten dutela.
- b) Estatu alderdi bakoitzak konpromisoa hartzen du, edozein pertsona edo erakundek gauzatutako arraza-bereizkeria ez suspertu, defendatu edo babesteko;
- c) Estatu alderdi bakoitzak neurri eragingarriak hartuko ditu, gobernu-politika nazionalak eta toki-mailakoak berrikusteko, eta legeak nahiz erregelamendu-xedapenak zuzendu, indargabetu edo deuseztatzeko, halakoen ondorio denean arraza-bereizkeria sortzea edo aurretiaz dagoen tokian iraunaraztea.
- d) Estatu alderdi bakoitzak debekatuko du, eta bide egoki guztiak erabilita bertan behera utzaraziko du, baita inguruabarrek hala eskatzen dutenean legegintzazko neurriak erabilita ere, pertsonak, taldeak edo erakundeak gauzatutako arraza-bereizkeria.
- e) Estatu alderdi bakoitzak konpromisoa hartzen du, bultzatzeko, hala denean, arraza askotariko erakunde eta mugimendu gizarteratzaileak, eta beste baliabide batzuk, arrazen arteko hesiak ezabatzera

barreras entre las razas, y a desalentar todo lo que tienda a fortalecer la división racial.

Los Estados partes tomarán, cuando las circunstancias lo aconsejen, medidas especiales y concretas, en las esferas social, económica, cultural y en otras esferas, para asegurar el adecuado desenvolvimiento y protección de ciertos grupos raciales o de personas pertenecientes a estos grupos, con el fin de garantizar en condiciones de igualdad el pleno disfrute por dichas personas de los derechos humanos y de las libertades fundamentales.

Esas medidas en ningún caso podrán tener como consecuencia el mantenimiento de derechos desiguales o separados para los diversos grupos raciales después de alcanzados los objetivos para los cuales se tomaron.

Artículo 3

Los Estados partes condenan especialmente la segregación racial y el apartheid y se comprometen a prevenir, prohibir y eliminar en los territorios bajo su jurisdicción todas las prácticas de esta naturaleza.

Artículo 4

Los Estados partes condenan toda la propaganda y todas las organizaciones que se inspiren en ideas o teorías basadas en la superioridad de una raza o de un grupo de personas de un determinado color u origen étnico, o que pretendan justificar o promover el odio racial y la discriminación racial, cualquiera que sea su forma, y se comprometen a tomar medidas inmediatas y positivas destinadas a eliminar toda incitación a tal discriminación o actos de tal discriminación, y, con ese fin, teniendo debidamente en cuenta los principios incorporados en la Declaración Universal de Derechos Humanos, así como los derechos expresamente enunciados en el artículo 5 de la presente Convención, tomarán, entre otras, las siguientes medidas:

zuzenduak, eta etsiarazteko arrazen arteko zatiketa indartzea ahalbidetzen duen oro.

Estatu alderdiek, inguruabarrek hala eskatzen dutenean, neurri berezi eta zehatzak hartuko dituzte, gizarte-, ekonomia- eta kultura-esparruetan, bai eta beste esparru batzuetan ere, arraza-talde batzuek edo talde horietako pertsona batzuek garapen eta babes egokia izatea ziurtatzeko, berdintasun-baldintzetan berma dadin pertsona horiek oso-osoan izatea giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak.

Neurri horien ondorioa inoiz ez da izango arraza-talde desberdinentzako eskubide desberdinak edo bananduak iraunaraztea, neurri horiek zein helbururekin hartu eta helburuok lortu ondoren.

3. artikulua

Estatu alderdiek bereziki kondenatzen dute arraza-segregazioa eta apartheid, eta konpromisoa hartzen dute euren jurisdikziopeko lurraldeetan izaera horretako eginera guztiak prebenitu, debekatu eta ezabatzeko.

4. artikulua

Estatu alderdiek kondenatzen dituzte propaganda oro zein erakunde guztiak, halakoek baliatzen dituztenean arraza baten edo larru-kolore nahiz jatorri etniko jakin bateko pertsonen nagusitasunean oinarritutako ideia nahiz teoriak, edo halakoek justifikatu edota sustatu nahi dutenean arraza-gorrotoa eta arraza-bereizkeria, horien mota edozein izanik ere; eta bereizkeria hori gauzatzera bultzatzen duten egintza guztiak edo horrelako bereizkeriazko jarduerak ezaba daitezen, berehalakoak eta positiboak izango diren neurriak hartzeko konpromisoa hartzen dute. Halaber, xede horrekin, estatu alderdiek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalera bildutako printzipioak, bai eta konbentzio honetako 5. artikuluan esanbidez adierazitako eskubideak ere, behar den moduan aintzat hartu ondoren, besteak beste, hurrengo

a) Declararán como acto punible conforme a la ley toda difusión de ideas basadas en la superioridad o en el odio racial, toda incitación a la discriminación racial, así como todo acto de violencia o toda incitación a cometer tales actos contra cualquier raza o grupo de personas de otro color u origen étnico, y toda asistencia a las actividades racistas, incluida su financiación;

b) Declararán ilegales y prohibirán las organizaciones, así como las actividades organizadas de propaganda y toda otra actividad de propaganda, que promuevan la discriminación racial e inciten a ella, y reconocerán que la participación en tales organizaciones o en tales actividades constituye un delito penado por la ley;

c) No permitirán que las autoridades ni las instituciones públicas nacionales o locales promuevan la discriminación racial o inciten a ella.

Artículo 5

En conformidad con las obligaciones fundamentales estipuladas en el artículo 2 de la presente Convención, los Estados partes se comprometen a prohibir y eliminar la discriminación racial en todas sus formas y a garantizar el derecho de toda persona a la igualdad ante la ley, sin distinción de raza, color y origen nacional o étnico, particularmente en el goce de los derechos siguientes:

- a) El derecho a la igualdad de tratamiento en los tribunales y todos los demás órganos que administran justicia;
- b) El derecho a la seguridad personal y a la protección del Estado contra todo acto de violencia o atentado contra la integridad personal cometido por funcionarios públicos o por cualquier individuo, grupo o institución;
- c) Los derechos políticos, en particular el de tomar parte en elecciones, elegir y ser

neurriak hartzen dituzte:

a) Adieraziko dute legearen arabera egintza zigorgarria dela arraza-nagusitasunean edo -gorrotoan oinarritutako ideien zabalkunde oro, arraza-bereizkeria bultzatzen duen jarduera oro, bai eta edozein arrazaren edo larru-azal nahiz jatorri etniko desberdineko pertsona-talderen aurkako indarkeria-egintza oro, edo egintza horiek gauzatzera bultzatzen dituzten jardueretarik beste edozein ere, eta jarduera arrazistei emandako laguntza oro, horren barne dela jardueraren finantzaketa.

b) Legearen aurkakotzat adierazi eta debekatuko dituzte, nahiz erakundeak, nahiz propagandarako antolatutako jarduerak eta propaganda-jarduera oro ere, halakoek arraza-bereizkeria sustatu edo hori egitera bultzatzen badute, eta aitortuko dute legeak zigortutako delitua dela erakunde edo jarduera horietan parte hartzea;

c) Ez dute utziko agintariak, ezta erakunde publiko nazional zein toki-mailakoek ere, arraza-bereizkeria sustatzea edo hori egitera bultzatzea.

5. artikulua

Konbentzio honetako 2. artikuluko oinarrizko betebeharrekin bat etorriz, estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute arraza-bereizkeria mota guztiak debekatu eta ezabatzeko, eta pertsona guztxie legearen araberako berdintasuna bermatzeko, bereizketarik egin gabe, arraza, larru-kolorea eta jatorri nazional nahiz etnikoagatik, bereziki, hurrengo eskubideak izateari dagokionez:

- a) Auzitegietan eta justizia administratu ohi duten organoetan tratamendu-berdintasunerako eskubidea;
- b) Segurtasun pertsonalerako eta estatuaren babesa izateko eskubidea, funtzionario publikoek edo edozein gizabanakok, taldek edo erakundek osotasun pertsonalaren aurka gauzatutako indarkeria-jarduera edo atentatu ororen aurka.
- c) Eskubide politikoak, eta horien artean bereziki, hauteskundeetan parte hartzea,

elegido, por medio del sufragio universal e igual, el de participar en el gobierno y en la dirección de los asuntos públicos en cualquier nivel, y el de acceso, en condiciones de igualdad, a las funciones públicas;

d) Otros derechos civiles, en particular:

i) El derecho a circular libremente y a elegir su residencia en el territorio de un Estado;

ii) El derecho a salir de cualquier país, incluso del propio, y a regresar a su país;

iii) El derecho a una nacionalidad;

iv) El derecho al matrimonio y a la elección del cónyuge;

v) El derecho a ser propietario, individualmente y en asociación con otros;

vi) El derecho a heredar;

vii) El derecho a la libertad de pensamiento, de conciencia y de religión;

viii) El derecho a la libertad de opinión y de expresión;

ix) El derecho a la libertad de reunión y de asociación pacíficas;

e) Los derechos económicos, sociales y culturales, en particular:

i) El derecho al trabajo, a la libre elección de trabajo, a condiciones equitativas y satisfactorias de trabajo, a la protección contra el desempleo, a igual salario por trabajo igual y a una remuneración equitativa y satisfactoria;

ii) El derecho a fundar sindicatos y a sindicarse;

iii) El derecho a la vivienda;

iv) El derecho a la salud pública, la asistencia médica, la seguridad social y los servicios sociales;

v) El derecho a la educación y la formación profesional;

vi) El derecho a participar, en condiciones de igualdad, en las actividades culturales;

f) El derecho de acceso a todos los lugares y servicios destinados al uso público, tales

sufragio unibertsal eta berdinen arabera hautatzea eta hautatua izatea, gobernuan eta edozein mailatako arazo publikoetan parte hartzea, eta berdintasun-baldintzetan funtzio publikoan sarrera izatea;

d) Bestelako eskubide zibilak, batez ere:

i) Askatasunez joan-etortzeko eta estatu bateko lurraldean bizilekua aukeratzeko eskubidea;

ii) Edozein herrialdetatik irteteko eskubidea, baita norberaren herrialdetik ere, eta norberaren herrialdera itzultzeko eskubidea;

iii) Naziotasuna izateko eskubidea;

iv) Ezkontzeko eta ezkontidea aukeratzeko eskubidea;

v) Jabe izateko eskubidea, banaka eta beste batzuekin elkartuta;

vi) Jaraunsle izateko eskubidea;

vii) Pentsamendu-, kontzientzia eta erlijio-askatasunerako eskubidea;

viii) Iritzi- eta adierazpen-askatasunerako eskubidea;

ix) Modu baketsuan bilerak egiteko eta elkartzeko askatasunari buruzko eskubidea;

e) Ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideak, bereziki:

i) Lanerako, lana askatasunez aukeratzeko, laneko baldintza bidezko eta egokiak izateko, langabeziaren aurkako babesa jasotzeko, lan bera egiteagatik alokairu bera jasotzeko eta ordainsari bidezko eta egokiak izateko eskubidea;

ii) Sindikatuak sortzeko eta sindikatuko kide egiteko eskubidea;

iii) Etxebizitzarako eskubidea;

iv) Osasun publikorako, medikuaren laguntzarako, Gizarte Segurantzarako eta gizarte-zerbitzuetarako eskubidea;

v) Hezkuntzarako eta lanbide-prestakuntzarako eskubidea;

vi) Kultura-jardueretan, berdintasun-baldintzetan, parte hartzeko eskubidea;

f) Erabilera publikora destinatutako toki eta zerbitzuetara jotzeko eskubidea, hala nola,

como los medios de transporte, hoteles, restaurantes, cafés, espectáculos y parques.

Artículo 6

Los Estados partes asegurarán a todas las personas que se hallen bajo su jurisdicción, protección y recursos efectivos, ante los tribunales nacionales competentes y otras instituciones del Estado, contra todo acto de discriminación racial que, contraviniendo la presente Convención, viole sus derechos humanos y libertades fundamentales, así como el derecho a pedir a esos tribunales satisfacción o reparación justa y adecuada por todo daño de que puedan ser víctimas como consecuencia de tal discriminación.

Artículo 7

Los Estados partes se comprometen a tomar medidas inmediatas y eficaces, especialmente en las esferas de la enseñanza, la educación, la cultura y la información, para combatir los prejuicios que conduzcan a la discriminación racial y para promover la comprensión, la tolerancia y la amistad entre las naciones y los diversos grupos raciales o étnicos, así como para propagar los propósitos y principios de la Carta de las Naciones Unidas, de la Declaración Universal de Derechos Humanos, de la Declaración de las Naciones Unidas sobre la eliminación de todas las formas de discriminación racial y de la presente Convención.

Parte II

Artículo 8

Se constituirá un Comité para la Eliminación de la Discriminación Racial (denominado en adelante el Comité) compuesto de dieciocho expertos de gran prestigio moral y reconocida imparcialidad, elegidos por los Estados partes entre sus nacionales, los cuales ejercerán sus funciones a título personal; en la constitución del Comité se tendrá en cuenta una distribución geográfica equitativa y la representación de las diferentes formas de civilización, así como de los principales sistemas jurídicos.

garraibideetara, hoteletara, jatetxeetara, kafetegietara, ikuskizunetara eta parkeetara.

6. artikulua

Estatu alderdiek euren jurisdikziopean dauden pertsona guztiei ziurtatuko dizkiete, babesa eta baliabide eragingarriak auzitegi nazional eskudunetan eta estatuko beste erakunde batzuetan, arraza-bereizkeriazko egintza ororen aurka, halako egintzek konbentzio honen aurka egin eta pertsona horien giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak urratzen dituztenean, bai eta bereizkeria horren ondorioz zein kalte eragin eta kalte horren biktimia gisa auzitegi horiei kalte-ordaina edo konponketa bidezko eta egokia eskatzeko eskubidea ere.

7. artikulua

Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute berehalakoak eta eragingarriak diren neurriak hartzeko, batez ere, irakaskuntza-, hezkuntza-, kultura- eta informazio-arloetan, arraza-bereizkeria eratortzen duten aurreiritzien aurka borrokatzeko eta nazioen eta arraza- nahiz etnia-talde desberdinen artean elkar ulertzea, tolerantzia eta laguntasuna sustatzeko, bai eta Nazio Batuen Gutunaren, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren, arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatu nahi dituen Nazio Batuen Adierazpenaren eta konbentzio honen asmoak eta printzipioak hedatzeko ere.

II. zatia

8. artikulua

Arraza Bereizkeria Ezabatzeko Komitea sortuko da (aurrerantzean Komitea deituko dena). Komite hori hemezortzi adituk osatuko dute, prestigio moral sendoko eta inpartzialtasun handikoak, estatu alderdiek hautatuko dituztenak euren nazionalen artean; aditu horiek euren eginkizunak modu pertsonalean gauzatzeko dituzte. Komitea osatzeko orduan geografiaren araberrako banaketa orekatsua eta zibilizazio-mota desberdinen ordezkari aintzat hartuko da; orobat, sistema juridiko nagusien ordezkari.

Los miembros del Comité serán elegidos en votación secreta de una lista de personas designadas por los Estados partes.

Cada uno de los Estados partes podrá designar una persona entre sus propios nacionales.

La elección inicial se celebrará seis meses después de la fecha de entrada en vigor de la presente Convención.

Al menos tres meses antes de la fecha de cada elección, el Secretario General de las Naciones Unidas dirigirá una carta a los Estados partes invitándoles a que presenten sus candidaturas en un plazo de dos meses.

El Secretario General preparará una lista por orden alfabético de todas las personas designadas de este modo, indicando los Estados partes que las han designado, y la comunicará a los Estados partes.

Los miembros del Comité serán elegidos en una reunión de los Estados partes que será convocada por el Secretario General y se celebrará en la Sede de las Naciones Unidas.

En esta reunión, para la cual formarán quórum dos tercios de los Estados partes, se considerarán elegidos para el Comité los candidatos que obtengan el mayor número de votos y la mayoría absoluta de los votos de los representantes de los Estados partes presentes y votantes.

a) Los miembros del Comité serán elegidos por cuatro años.

No obstante, el mandato de nueve de los miembros elegidos en la primera elección expirará al cabo de dos años; inmediatamente después de la primera elección el Presidente del Comité designará por sorteo los nombres de esos nueve miembros.

b) Para cubrir las vacantes imprevistas, el Estado parte cuyo experto haya cesado en sus funciones como miembro del Comité, designará entre sus nacionales a otro experto, a reserva de la aprobación del

Komiteko kideak isilpeko botazio bidez hautatuko dira, estatu alderdiek izendatutako pertsonen zerrenda batetik.

Estatu alderdi bakoitzak pertsona bat izendatu ahal izango du bere nazionalen artean.

Hasierako hautatzea egingo da konbentzio hau zein datatan indarrean jarri eta data horretatik sei hilabete igaro ondoren.

Hauteskunde bakoitza zein datatan egin eta, gutxienez, data hori baino hiru hilabete lehenago, Nazio Batuetako idazkari nagusiak gutun bat bidaliko die estatu alderdiei, euren hautagai-zerrendak bi hilabeteko epean aurkezteko gonbita eginez.

Idazkari nagusiak, modu horretara izendatutako pertsona guztiekin, hurrenkera alfabetikoaren arabera zerrenda prestatuko du, pertsona horiek izendatu dituzten estatu alderdiak zehaztuz; zerrenda horren berri estatu alderdiei emango die.

Komiteko kideak estatu alderdien bilera batean izendatuko dira; bilera horren deialdia idazkari nagusiak egingo du, eta bilera Nazio Batuen egoitzan egingo da.

Bilera horretarako estatu alderdien bi herenak osatuko du quoruma, eta Komiterako hautatutzat joko dira boto gehien lortzeaz gain, bilerako estatu parte-hartzaile eta boto-emaitzen ordezkarien artean botoen erabateko gehiengo lortzen duten hautagaiak.

a) Komiteko kideak lau urterako hautatuko dira.

Hala ere, lehenengo hautaketan hautatutako bederatzi kideren agintaldia bi urte igaro ondoren amaituko da; lehenengo hautaketa egin eta berehala, Komiteko lehendakariak zozketa bidez izendatuko ditu bederatzi kide horiek.

b) Aurreikusi gabeko hutsuneak betetzeko, Komitean zein estatu alderdiko kidek utzi bere eginkizunak gauzatzeari eta horren estatuak izendatuko du beste aditu bat, bere nazionalen artean, aditu horren

Comité.

Los Estados partes sufragarán los gastos de los miembros del Comité mientras éstos desempeñen sus funciones.

Artículo 9

Los Estados partes se comprometen a presentar al Secretario General de las Naciones Unidas, para su examen por el Comité, un informe sobre las medidas legislativas, judiciales, administrativas o de otra índole que hayan adoptado y que sirvan para hacer efectivas las disposiciones de la presente Convención:

a) dentro del plazo de un año a partir de la entrada en vigor de la Convención para el Estado de que se trate; y b) en lo sucesivo, cada dos años y cuando el Comité lo solicite.

El Comité puede solicitar más información a los Estados partes.

El Comité informará cada año, por conducto del Secretario General, a la Asamblea General de las Naciones Unidas sobre sus actividades y podrá hacer sugerencias y recomendaciones de carácter general basadas en el examen de los informes y de los datos transmitidos por los Estados partes.

Estas sugerencias y recomendaciones de carácter general se comunicarán a la Asamblea General, junto con las observaciones de los Estados partes, si las hubiere.

Artículo 10

El Comité aprobará su propio reglamento.

El Comité elegirá su Mesa por un período de dos años.

El Secretario General de las Naciones Unidas facilitará al Comité los servicios de secretaría.

Las reuniones del Comité se celebrarán normalmente en la Sede de las Naciones Unidas.

Artículo 11

Si un Estado parte considera que otro Estado parte no cumple las disposiciones

izendatzeak Komitearen onespena behar duela.

Estatu alderdiek Komiteko kideen gastuak ordainduko dituzte, horiek euren eginkizunak gauzatzen dituzten bitartean.

9. artikulua

Estatu alderdiek Nazio Batuetako idazkari nagusiari txostena aurkezteko konpromisoa hartzen dute, Komiteak azter dezan; txosten hori izango da konbentzio honetako xedapenak eragingarri egiteko hartu dituzten legegintza-, epaiketa- eta administrazio-neurriei edo bestelako neurriei buruzkoa. Bada, txosten hori aurkeztuko dute:

a) Kasuan kasuko estatuarentzako konbentzioa indarrean jarri eta urtebetera; eta b) osterantzekoan, bi urterik behin, eta Komiteak hala eskatzen duenean.

Komiteak informazio gehiago eskatu ahal die estatu alderdiei.

Idazkari nagusiaren bidez, Komiteak urtero informatuko du bere jardueraz Nazio Batuetako Biltzar Orokorra, eta izaera orokorreko iradokizunak eta gomendioak egin ahal izango ditu, estatu alderdiek igorritako txostenen eta datuen azterketak oinarri hartuta.

